

Oh. - 0 km (1) **Plaza.** Zeanuriko frontoiaren frontisaren atzetik hasiko dugu ibilbidea, idi-probak egiten direnetik pasatuko gara eta zubi bat zeharkatuko dugu eta Zeanuri Undurraga eta Ipiñaburukin batzen duen errepeidea aurkituko dugu.

Behin zubia zeharkatuta ezkerretarantz hartuko dugu eta errepi-deari jarraituko diogu. Hainbat baserri utziko dugu ezker-eskuinaldean eta aldapa gogor samarra igotakoan Undurraga urtegiara iritsiko gara 19 minututan. Plazatik 1.400 bat metro izango dira.

Beti ere errepeidea jarraiturik, gure ezkerretara gelditzen den urtegiaren ertetik abiatuko gara. Undurraga auzora ari gara hurbiltzen, eta zuzenean San Pedro (pintura) elizara eramango gintuen aldapa gogorrek salhesbidea eskuinetara utzirik beste zubi bat zeharkatzen dugu eta bidea banatzen denean ezkerretarantz hartuko dugu (eskuinaldean 34 km-a adieratzen duen mugarria dago).



45' - 3,1 km (2) **Undurraga.** Zubitik 300 bat metrora eskuinalderantz gorantz doan errepeideak, ezkerretarantz "Arbiñe" baserri-ra doan salhesbidea dauka, guk hauxe hartuko dugu. Ibilbide honen orientabide orokorra Undurraga urtegia zeharkatu eta urtegiaren beste aldetik, asfaltatu gabeko bidetik, berriz ere plazara iristea da. Orientabide honi jarraiturik eta gure eskuinalderantz gelditzen den Arbiñe aurretik pasatuta,



Frontoiesteko Baserria



Undurraga Urtegia

Undurraga argi-indar zentralaren instalazioei dagokien ate handi metaliko berdea gure eskuinaldean utziko dugu; aurrerago egurrezko txabola bat utziko dugu ezkerretarantz eta aldapatxo bat igotzen dugu; ondoren zubi metaliko bat aurkitzen dugu eta etxe zuri batzuetara iritsi baino lehenago ezkerretarantz jaitsiko gara ur bila (margotutako hesola).

Urtegia inguratzen duen bidea jarraitzen dugu, eta egurrezko bi ate pasa ondoren urtegia eusten duen hormara iristen gara. Zubitik 1.600 bat metro izan dira. Zeharkatu egiten dugu eta errepeidea hartuta plazara itzultzen gara.

1o. 35' - 6,5 km (3) **Plaza.**

